

# ULTZANUETA ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

-----  
Lehendakaria: D. Martín M<sup>a</sup> Picabea Aguirre ( Ultzama )

Batzordekideak:

D. Martín M<sup>a</sup> Picabea Aguirre ( Ultzama )

D. Jesús M<sup>a</sup> Larretxea Lazkano ( Ultzama )

D. Nicasio Doray Bengoechea ( Ultzama )

D. Francisco Pérez Arregui ( Ultzama )

D. Roberto Elbusto Egozkue ( Anue )

D. Alberto Urdániz Elizondo ( Odieta )

## MANKOMUNITATEKO BATZARRERAKO DEIA

Martin M<sup>a</sup> Picabea Aguirrek, Ultzama, Anue eta Odieta "ULTZANUETA" Zerbitzuen Mankomunitateko Lehendakariak, Mankomunitateko BATZARRAREN kide zaren aldetik, EZ-OHIKO BILKURARA DEI egiten zaitut. Bilkura, Ultzamako Udaletxeko areto nagusian egingo da **OSTEGUNEAN, 2021EKO ABENDUAREN 30ean, 19:00etan.**

Etortzerik ez baduzu, etortzea eragozten dizun BIDEZKO ARRAZOIA egiaztatu beharko duzu, toki-araubidearen legediak adierazten duen erantzukizunik ez izateko.

Gai-zerrendan agertzen diren gaien dokumentazio osoa, eztabaidarako eta, hala badagokio, bozketarako oinarri izango dena, batzordekideen esku Idazkaritzan egongo da, Deialdiaren egunetik aitzina.

Jakinaren gainean egon zaitezten eta bidezko ondorioak izan ditzan, jakinarazten dizut, Erripan ( Odieta ), bi mila eta hogeita bateko ABENDUAREN 20ean.



Ultzanueta  
Zerbitzuen  
Mankomunitatea  
Mancomunidad  
de Servicios de  
Ultzanueta

D. Martín M<sup>a</sup> Picabea Aguirre  
Lehendakaria  
ULTZANUETA Zerbitzuen Mankomunitatea

## **GAI-ZERRENDA**

- 1. Aurreko bilkuretako aktak onestea.**
- 2. Ultzanueta Zerbitzuen Mankomunitatearen 2022. urteko Aurrekontua eta horiek betearazteko Oinarriak, hasiera batez onestea.**
- 3. Ultzanueta Zerbitzuen Mankomunitatearen 2022. urteko Plantilla Organikoa, hasiera batez onestea.**
- 4. 2022. urteko Lan-Egutegia onestea.**
- 5. Ultzanueta Mankomunitateak emandako ur-hornidura, saneamendu eta gainerako zerbitzu eta jardueren tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala eta Tarifen Eranskina Aldatzeko Espedientea, hasiera batez onestea.**
- 6. Batzorde Iraunkorrek 2021eko azaroaren 4an hartutako erabakia berrestea, “Erronka demografikoa duten udalerrietan (DUS-5000), energia garbiko tokiko proiektu berezietan egindako inbertsioen diru-laguntzen Zuzeneko Deialdia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Berroneratze eta Erronka Demografikoko Programaren esparruan. Bidezkoak diren akordioak hartzea.”**
- 7. Nafarroako Gobernuko Industriaren, Energiaren eta Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiak urriaren 15eko 121E/2021 EBAZPENaren bidez onartutako diru-laguntzaren deialdia: Autokontsumorako eta energia-iturri berriztagarrien bidez biltegitartzeko laguntzak, baita bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeko laguntzak ere. Dagozkion erabakiak hartzea.**

- 8. Hasiera batez onestea, “Deialdia jakinarazteko epeari dagokion Mankomunitateko Estatutuen 18. artikulua aldatzea”.**
- 9. GESERLOCAL SL erakundea ULTZANUETA Zerbitzuen Mankomunitateko erakunde instrumental deklaratzeko, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.**
- 10. Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrek harturiko erabakiak berrestea.**
- 11. Argibideak.**
- 12. Eskaerak eta Galderak.**